

## AKTA

### Ohiko Osoko Bilkuraren bilera

**ORGANOA:** Ohiko Osoko Bilkura  
**DEIALDIA:** Lehenengoa  
**EGUNA:** 2019-02-01 (01)  
**ORDUA:** 13:00 – 14:10  
**LEKUA:** Markina-Xemeingo udaletxeko bilkura aretoan

#### **BERTARATUAK:**

Alkatea: Juan Jose Txurruka Txurruka (EH BILDU)

Zinegotziak: Aitor Odiaga Garate (EH BILDU)  
Josune Baskaran Etxeberria (EH BILDU)  
Iratxe Lasa Arana (EH BILDU)  
Isa Mandiola Zuazo (EH BILDU)  
Andoni Malaxetxebarria Kaltzakorta (EAJ/PNV)  
Alex Aretxabaleta Egia (EAJ-PNV)  
Ainara Gandiaga Longarte (EAJ-PNV)  
Luis Mari Malaxetxebarria Elordi (EAJ-PNV)  
Sorkunde Maguregi Maguregi (EAJ-PNV)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementería Otxandio

Bertaratu ezina arrazoitu du: Joseba Iraolagoitia Martinez (EAJ-PNV)

#### **AZTERGAIK:**

- 1.- Aurreko bilerako akta onartzea.
- 2.- BERTON Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ).
- 3.- Zelaibarriko obra.
- 4.- Animaliak edukitzearen arautegiari buruzko arau-hauste espedientea.
- 5.- Pinuak uzteko lur publikoaren okupazio tasa.
- 6.- 21. Kreditu aldaketaren berri ematea.
- 7.- Zinegotzien galderak.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren Legearekin bat etorrira, jasota utzi nahi da behar-beharrezkoa den testua baino ez dela aktan jaso. Bilkuran izandako eztabaida guztien xehetasunak grabatu egin dira eta grabazioa dokumentuaren parte izango da izango, soinu-artxibo gisa.

### **1.- AURREKO BATZARREKO AKTA ONARTZEA.**

1203 – 2018/74 KODEA

2018ko abenduaren 13ko ohiko Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

### **2.- BERTON HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ).**

2019 – 00034 KODEA

Orain dela bi urte udaletxearen modernizazio prozesu bati hasiera eman zitzaion, hain zuzen, udal tramiteen eskuliburuaren sorrerarekin hasi zena. Aipatutako lan hori amaituta eta berak zekarren jarraipen naturalari jarraituz, udal langileek kontsideratu zuten interesgarria zela herritarren arreta zerbitzua martxan jarriko lukeen proiektuari hasiera ematea.

Udalbatza momentu guztietan prozesuaren jakitun izan da; izan ere, hainbat osoko bilkuretan prozesu honi zegokion hainbat erabaki garrantzitsu hartu izan dira; adibidez, ordenantza, funtzionamenduaren memoria, giza baliabideen berrantolaketa, etab.

Lan hau garatzeko HAEE/IVAP-en lankidetzaz jaso zen, zerbitzua martxan jartzeko ikastaroa eskaini zuelarik. Aipatutako ikastaro honetan beste hainbat udalek ere parte hartu zuten; hala nola, Berriz, Ondarroa, Azkoitia eta Galdames.

Roberto Otxandio Izagirre izan da ikastaroa gidatu duen pertsona eta sustatzaile, zuzendari, coach... bezala funtzionatu duena. Orain dela aste bat, eta ikastaroa amaitu gabe baina Markina-Xemeinek Herritarren Arreta Zerbitzua martxan jarria izanik, BERTON izenarekin, behean azaltzen den testua idatzi zuen.

Iruzkin hori, gaur, idazkari eta kontu-hartzaileak osoko bilkurara ekarri du, batez ere, inizatiba eta proiektu honetan parte hartu duten udal langileen izenean alkateari eskerrak emateko. Alde batetik, prozesu guztian emandako laguntzagatik; eta, bestetik, herritarren arreta eta funtzionamendua hobetzeko zerbitzu hori martxan ezartzerakoan beraiengan sinestu duelako, hau da, azken batean, emandako konfiantza eskertzeko.

*Eskerrik asko Markina-Xemein!!!! eta Zorionak!!!!*

*En cada programa de formación que facilito siempre destaca un Ayuntamiento. Sin menoscabo ni menosprecio al resto. Pero siempre hay uno que destaca. y en este programa no sólo ha destacado de entre el resto de participantes, sino que lo ha hecho de entre todos los programas que he dinamizado durante los últimos 10 años. Y es Markina-Xemein. Hasta ahora sí había habido ayuntamientos que habían finalizado su Manual de trámites antes de que finalizara el plan de formación. Recuerdo a Iurreta, y también a Amurrio....pero que hubieran inaugurado su Servicio Integral de atención ciudadana antes de que finalizara el programa....NINGUNO hasta este. Y quiero ponerlo en valor. Markina-Xemein no sólo ha ido cumplimentando uno a uno cada uno de los "escalones" que recomendamos....sino que además lo ha hecho con estilo propio, adaptándolo a sus circunstancias, y también para mí con algo muy importante: con humildad, y con buen humor. Porque lo divertido no es contrario de lo serio sino de lo aburrido.*

*Me gusta vuestra campaña de divulgación, pero sobre todo lo que más me gusta es vuestro compromiso con el servicio, vuestras ganas de hacer las cosas bien, y vuestra vitalidad.*

*Recuerdo el final de la película Coach carter....«Nuestro mayor miedo, no es que no encajemos... Nuestro mayor miedo es que tenemos una fuerza inconmensurable, es nuestra luz y no nuestra oscuridad lo que más nos asusta, empequeñecerse no ayuda al mundo, no hay nada inteligente en encogerse para que otros no se sientan inseguros a tu alrededor, todos deberíamos brillar como hacen*

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

*los niños, no es cosa de unos pocos, sino de todos, y al dejar brillar nuestra propia luz, inconscientemente damos permiso a otros para hacer lo mismo, al liberarnos de nuestro propio miedo, nuestra presencia libera automáticamente a otros...»  
Os animo a seguir brillando para que otros puedan hacer lo mismo.  
Mila esker!!!!*

*Zuetaz harro sentitzen naz!*

### **3.- ZELAIBARRIKO OBRA.**

4201 – 2017/134\_Sign. 2297.1 KODEA

2017. urtean Zelaibarriko urbanizazio lanak lizitaziora atera ziren. Iderraga-Ituarte 19 U.A. urbanizazioaren zati bat da. Aipatutako obra honek 1.541.660,90 euroko lizitazio aurrekontua zeukan. Guztira sei enpresa aurkeztu ziren eta prozedura irekia jarraitu zen.

Lizitazio prozesuaren ondoren Kontratazio Mahaiak gainerako esleipendunak prozesuak kanpo uztea erabaki zuen eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez izanagatik, eta URRE SA enpresa esleitzea erabaki zuen 1.278.759,44 euroko zenbatekoarekin.

Subjektu pasiboaren inbertsioa aukeratu zen, obra BEZ gabe fakturatzuz. Obra hau 2018ko martxoaren 15eko osoko bilkuran adjudikatu zen.

Obraren lehenengo fasea uda hasieran amaitu zen, eta momentu honetan bigarren fasea gauzatzen ari da.

Ondorengo ziurtagiria aurkezten da beraren berrespen eta onarpenerako:

- Urre SA, 123.149,40 euroko zenbatekoarekin, 7. ziurtagiria onartzeko (subjektu pasiboaren inbertsioa aplikatu denez, BEZ gabe).

Horrez gain, 2019ko urtarrilaren 16ko datuz Urre Sako ordezkariak hiru hilabete eta erdiko luzapena eskatu zuen obra amaitzeko. Aipatutako luzapena onartu egin zen urtarrilaren 21eko alkate dekretuz.

Udalbatzak aho batez ondorengo onartu du:

- 1) Aurkeztutako ziurtagiria onartzea.
- 2) Luzapena kontuan hartzea.
- 3) Arlo ekonomikoari akordioaren berri ematea.
- 4) Urre SA enpresari akordioa jakinaraztea.

### **4.- ANIMALIAK EDUKITZEAREN ARAUTEGIARI BURUZKO ARAU-HAUSTE ESPEDIENTEA.**

2019 – 00075 KODEA

Ondarroako Ertzaintzaren Komisaldegiko Landa Patruila baten txostena jaso dela azaltzen da. Bertan, 2018/12/03an Erdotza auzoko pista batean txakur batek hozka egin zuela eta zaurien salaketa bat ezarri zela adierazten da.

2018/12/24ko data duen Ertzaintzaren Komisaldegiko Landa Patruila horren idatziak Iñaki Albizu Arrizabalo albaitariak egindako txostenaren kopia atxikita dauka. Bertan, eraso egin zuen

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

txakurraren datuak (txiparen zk. 941000017029270) eta bere jabea Paula Arriola Totorikaguena dela ziurtatzen da.

Ondarroareko Ertzaintzaren Komisaldegiko Landa Patruilaren txostenean azaltzen da, 2018/12/03an, arratsaldeko 15:00etan, izandako gertaerak animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzarekin bat etorritik (2006/01/16ko udalaren osoko bilkurak onartua eta 2006/03/08ko 47 zk. iragarkian publikatua), animaliak edukitzeko arautegiaren arau-hauste administratiboa eratu dezaketela kontsideratu daiteke. Zehazki, kalteren bat eragin dezaketen animalien zaintza eta babesa behar bezala ez mantentzea falta larritzat hartzen da (Animalien Babeserako, urriaren 29ko, 6/1993 Legearen 27.2.h artikulua).

6/1993 Legearen 28.1.b) artikulua araberako aipaturako arau-haustea 300,52 eurotik 1.502,53 eurora bitarteko isuna jasango dute.

Udalbatzak, aurretiazko jarduketak aztertuta eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legeko 21.1.s) artikulua ezarritakoarekin bat etorritik, aho batez ondorengo onartu du:

- 1) Azaldutako gertaerengatik animaliak edukitzeari buruzko arau-hauste espedienteari hasiera ematea (animalia solte edukitzea berari dagokion zaintzaren obligazioa bete izan gabe), Paula Arriola Totorikaguena txakurraren jabea, bere bizilekua Bidaurreta baserria dena.
- 2) Aipaturako gertaerak animaliak edukitzeko arautegiaren arau-hauste administratiboa eratu dezaketela azaltzea, zehazki, arau-hauste larri gisa (Animalien Babeserako, urriaren 29ko, 6/1993 Legearen 27.2.h artikulua) eta dagokion isuna 300,52 eurotik 1.502,53 euro bitartekoa izango dela, animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzarekin eta Animalien Babeserako, urriaren 29ko, 6/1993 Legearen 28.1.b) artikuluaekin bat etorritik.
- 3) Zehapen-prozeduraren instruktoe bezala Isa Mandiola Zuazo izendatzea eta idazkari gisa, udaletxeko idazkaria. Horrez gain, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren, urriaren 1eko, 40/2015 Legeak 23 eta 24 artikuluetan azaltzen den abstentzio eta errekusazioarekin bat etorritik da. Behin, zehapen-prozedura bukatuta eta arau-hausteari kalifikazioaren araberako, egindako jarduketak konpetentzia duen organoari bidaliko zaizkio ebazteko.
- 4) Behin zehapen-prozedura hasita eta arau-haustea bere erantzukizuna onartzen badu edota isunaren borondatezko ordainketa gauzatu nahi badu, dagokion isunaren zenbateko osoaren %20a murriztuko zaio; betiere, isunaren aurka, administrazio-bidean edozein ekintza edo errekurso jartzeari uko egiten duela jasota utziz.

Aipaturako murrizketen eraginkortasuna baldintzatuta egongo da, isunaren aurka, administrazio-bidean edozein ekintza edo errekurso jartzeari uko egitearekin.

- 5) Interesdunei zehapen-prozedurari hasiera eman zaiola jakinaraztea, eta beharrezkoak iruditzen zaizkion alegazio, dokumentazio eta informazioa aurkezteko hamabost eguneko epea izango duela; eta, bere kasuan, egoki deritzote frogabideak proposatzea, espedientea udaletxean eskuragarri izanik.

## **5.- PINUAK UZTEKO LUR PUBLIKOAREN OKUPAZIO TASA.**

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

Hirigintzako lantaldeak, urtarrilaren 8ko dataz egindako bileran, basogintza ustiapenetatik sortutako apeak pilatzeko helburuarekin, herrian lursail bat horretara zuzentzea proposatu zuen; betiere, bere erabilera udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzak araututa eta dagokion tasa berri bat ezarriz; hala nola, Etxebarriako Udalak egiten duen bezala.

Hirigintza lantaldearen proposamena ontzat eman zen; horretarako, erabiliko den lurzoru publikoa Kareaga Industrialdean kokatzen da; gaur egun, eta inolako baimenik izan gabe, basogintzako enpresa batzuk egurra pilatzen duten gunea izango litzateke.

Momentu honetan, udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza aldatu beharko litzateke, eta hemendik aurrera baimena eskatzen duten basogintza enpresei eta orain arte baimenik izan gabe aritu direnei, aipatutako lurzoruaren okupazioagatik 0,50 euro m<sup>3</sup>-ko tasa aplikatzea adostu da.

Udalbatzak aho batez ondorengoa onartzen du:

- 1) Aipatutako terminoetan ordenantza behin-behinean onartzea. Bizkaiko Aldizkari Ofizialera iragarki bat bidaliko da aldaketan berri emanez eta 30 eguneko epea zabalduko da, iragarkia publikatzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita, bere kontsulta edota alegazioaren bat aurkezteko. Aipatutako epean ez bada inolako alegaziorik aurkezten, aldaketak behin betikotzat hartuko dira automatikoki. Orduan, bigarren iragarki bat bidaliko da ordenantzaren aldaketak behin betikotzat onartu direla adieraziz, eta azken hau publikatzen den egunean indarrean sartuko da.
- 2) Akordio hau arlo ekonomikoari jakinaraztea.

## **6.- 2019 EKITALDIRAKO AURREKONTUAREN HASIERAKO ONESPENA.**

2019 – 00022 KODEA

Alkateak 2019 ekitaldirako aurrekontuei dagokien espedientea Udalbatzari azaltzen dio. Espedienteari dagokion dokumentazioaren berri ematen du eta azalpen guztiak Ogasun lantaldeetan argudiatu direla aipatzen du.

Jarraian, diru-sarreraren eta gastuen kapitulu bakoitzaren zenbatekoak azaltzen dira, era laburrean:

<b>GASTUAK</b>		
1	LANGILE GASTUAK	1.664.303,81
2	GASTU ARRUNTAK ETA MANTENIMENDU GASTUAK	1.970.188,27
3	FINANTZA GASTUAK	12.048,99
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	981.835,48
6	INBERTSIO ERREALAK	296.532,94
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	5.000,00
8	FINANTZA AKTIBOAK	20.000,00
9	FINANTZA PASIBOAK	182.516,60
<b>GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA</b>		<b>5.132.426,09</b>

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

<b>SARRERAK</b>		
1	ZERGA ZUZENAK	1.090.695,56
2	ZERGA EZ-ZUZENAK	100.000,00
3	TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK	483.221,46
4	TRANFERENTZIA ARRUNTAK	3.473.149,42
5	DIRU-SARRERA PATRIMONIALAK	26.614,52
6	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGAMATZEA ETA BESTELAKO HIRIGINTZAKO DIRU-SARRERAK	0,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00
8	FINANTZA AKTIBOAK	20.000,00
9	FINANTZA PASIBOAK	0,00
<b>SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA</b>		<b>5.193.680,96</b>

Aurrekontua onartzeko tramitazioa abenduaren 2ko 10/2003 Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen Foru Arauko 14. eta ondorengo artikuluetan azaltzen da.

Zehazki ondorengo pausuak eman behar dira:

- Alkateak aurrekontua egitea.
- Kontu-hartzaileari espedientea igortzea eta Ogasun lantaldearen irizpena.
- Osoko Bilkurak espedienteari hasierako onespina ematea.
- Hamabost eguneko epean informazio publikora jartzea.
- Ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten behin betiko onartu dela ulertuko da eta beste iragarki bat bidaliko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialera aurrekontua kapituluka banatuta eta azken hau publikatzen denean indarrean sartuko da.
- Bizkaiko Aldizkari Ofizialera kopia bat bidaliko da.

Udalbatzak espedienteko dokumentazioa ikusita, bozketari hasiera emango zaio. Lortutako emaitza ondorengoa da: EAJ-PNV alderdiaren kontrako bost botu eta EH BILDU alderdiaren aldeko bost botu. Alkateak kalitatezko botua erabiltzen du eta ondorioz, aurrekontua onartu egiten da gehiengoarekin.

Eztabaida bat sortu (ez da bere osotasunean azaltzen, akta honi gehitzen zaizkion soinu-artxiboan gehitzen delako) da udalbatzako kideen artean EAJ-PNV alderdiak aurrekontua onartu ez izanaren ondorioz. Desadostasuna Gazteleku proiektuari ezarri zaion zenbatekotik dator. Izan ere, herriko beste taldeei ematen zaien kantitateekin alderatuta desberdintasuna dagoela kontsideratzen dute. Beraien ustez, gainerako kultur eta kirol taldeetako begiraleekin konparaziozko bidegabekeria dagoela azaltzen dute; izan ere, beste monitoreek ez dute ezer kobratzen egiten duten lanaren truke.

Dena dela, Gazteleku proiektuarekin bat datozela eta babestu egiten dutela adierazi dute.

EH BILDUKo zinegotziek penagarria dela aipatzen dute, gai batekin ados ez egoteagatik aurrekontua aho batez ez onartzea. Aurrekontua ez onartzeko erabili duten argumentuari erantzunez, Ogasun lantaldeko bileretan horren berri eman behar zutela adierazten dute. Eta azkenik, beraien iritziz, alde batetik, proiektu honekin erdietsi nahi diren helburuak lortzeko ezarri den kantitateak soberan justifikatuta daude; eta, bestetik, adin txikiko gurasoekin hitzartutakoa izateak soilik,

Beraien iritziz, proiektuarekin erdietsi nahi diren helburuak lortzeko ezarri den kantitatea soberan justifikatuta dago; eta gainera, proiektua herriko adin txikiko gurasoekin adostua izateak soilik jada proiektuari zuzendu zaion kantitatea justifikatzen duela adierazten dute.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

Hori horrela, gehiengoz, ondorengo adosten da:

- 1) 2019 urterako udalaren aurrekontuari hasierako onespena ematea, baita plantilla organikoari eta lanpostuen zerrendari ere; guzti hau, aurrekontuaren espedientera gehituko dena.
- 2) Bizkaiko Aldizkari Ofizialera iragarkia bidaltzea aurrekontuaren hasierako onespena emateko. Iragarkia publikatzen den egunetik zenbatzen hasita hamabost egun balioduneko epea izango da espedientea kontsultatzeko, eta, bere kasuan, alegazioak aurkezteko.
- 3) Ez bada inolako alegaziorik aurkezten, aurrekontuak behin-betiko onespena hartuko du. Orduan, bigarren iragarki bat bidaliko da aurrekontua kapituluka banatuta, plantilla organikoaren eta lanpostuen zerrendarekin. Aurrekontua indarrean sartuko da iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den momentuan.
- 4) Arlo ekonomikoari akordio honen berri eman.
- 5) Erabaki honen ziurtagiria egitea, espedienterako.

#### **7.- 21. KREDITU-ALDAKETAREN BERRI EMATEA.**

2313 – 2018/63 KODEA

Alkateak ondorengo kreditu-aldaketaren berri ematen dio Udalbatzari:

- 21. kreditu aldaketa: aurrekontura kiroldetik diru-sarrerak txertatzeko kreditu gaikuntza da. Aldaketa hau Alkate Dekretuz onartu da 2018ko abenduaren 31an.

Azalduakoa ikusita, eta Ogasun lantaldearen aldeko irizpenarekin, Udalbatzak hauxe erabaki du aho batez:

- 1) Alkate dekretuz onartutako 21. kreditu-aldaketaren inguruan jakinaren gainean gelditzea.
- 2) Arlo ekonomikoari akordioaren berri ematea, dagokion espedientean azalertzeko.

#### **8.- ZINEGOTZIEN GALDERAK.**

2019 – 00015 KODEA

Andoni Malaxetxebarria Kaltzakortak idazkari eta kontu-hartzaileari eskatzen dio udaltzaingorako deialdi bateratuaren funtzionamendua azaltzeko. Udal idazkari eta kontu-hartzaileak adierazten du batera egin den hirugarren deialdia dela; interesa duen herriak bere parte-hartzea eskatzen du eta behar dituen agente kopurua zehazten du. Oposaketak egiten dira eta gainditu duten pertsonak, lortutako puntuazioaren arabera, lanpostua aukeratzeko dute. Gainditu arren plaza lortu ez dutenek, betiere gainditutako kopurua handiagoa denean lanpostuena baino, lanpostuaren barne sartuko dira.

Luis Mari Malaxetxebarria Elordik galdetzen du Goikoportaleko ikurriña aldatzeko asmorik dagoen, nahiko hondatuta omen dago eta. Udaleko idazkari eta kontu-hartzaileak aipatzen du aurrekontu bat dagoela bere hornidurarako.

## 9.- BETI JAI JUBILATUEN ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA “RESCATE DE PLANES DE PENSIONES Y EPSVs”

2019 – 00015 KODEA

Beti Jai jubilatuen elkarteak aurkeztutako “Rescate de planes de pensiones y EPSVs” mozioren berri ematen da. Ondorengo testua helarazi dute:



**Ayuntamiento de MARKINA-XEMEIN**

Bilbao a 21 de enero de 2019

**Sr. Alcalde/sa JUAN JOSE TXURRUKA TXURRUKA**

**Asunto: Rescate Planes de Pensiones y EPSVs**

En nombre del colectivo de mayores NAGUSIAK, representando a 52.000 personas asociadas en Bizkaia, agrupadas en 139 asociaciones de 112 municipios, y configurado por un colectivo de pensionistas, jubiladas y jubilados, todas personas comprometidas, solicitamos un tratamiento fiscal más adecuado para nuestros ingresos, a tenor de la delicada situación actual de las Pensiones, para que presente una MOCION en el próximo Pleno, que le proponemos a continuación.

**Premisas:**

- 1.- Los ingresos de las jubiladas y jubilados provienen de las cotizaciones de las empresas y de las personas en activo actualmente. Esas cotizaciones al Sistema de Pensiones tienen el tratamiento legal actual, sobre los sueldos, que se tratan como rendimientos del trabajo, igual para todas las personas que cuando estábamos en activo. Al jubilarnos las pensiones que nos corresponden, en función de lo cotizado, las cobramos en forma de rendimientos del trabajo, cuando podríamos calificarlos de “ahorros”. Estos ingresos/ahorros vuelven a pasar por el mismo tratamiento fiscal. Parece que no solo pagamos dos veces, sino que, además siendo nuestros “ahorros” para la jubilación deberían tener un tratamiento fiscal más acorde con su origen que ya no es de nuestro trabajo, sino nuestros ahorros y que acaban de pasar el otro “filtro” impositivo de los trabajadores y trabajadoras en activo.
- 2.- Las jubiladas y jubilados que han podido ahorrar, por tener sueldos dignos, a través de Planes de Pensiones y EPSVs, convencidos de la bondad de los mismos, y ahora comprobado que no es tan evidente, nos encontramos con una situación verdaderamente preocupante por el resultado fiscal para nuestros ahorros. El hecho es que al rescatarlos el 60% de esos ahorros vuelven a ser tratados como rendimientos del trabajo teniendo que cotizar por porcentajes mucho más altos que otros sistemas de ahorro, provocando la desaparición de parte de nuestros ahorros.
- 3.- La desgravación que nos beneficia durante los años de ahorro, además de estar limitada en su importe, es similar al recargo que tenemos que soportar al recuperar nuestros ahorros. La diferencia está en que cuando ahorras la bonificación es año a año, y al rescatarlo es en una sola vez resultando espectacularmente doloroso. Si se hace como pensión vitalicia la situación es dramática porque no te puedes desgravar nada de lo que percibes. El resto de años que vivas pagarás por los ingresos/ahorros vitalicios como Rendimiento del Trabajo sin ningún tipo de desgravación. Da la sensación de que somos una de las únicas fuentes, inagotables y sumisas, de ingresos de la Haciendas Forales, por nuestros ahorros ahora, y por nuestros ingresos antes.



4.- El rendimiento de los Planes de Pensiones y EPSVs es muy atractivo sobre el papel para los ahorradores, pero la realidad es que el verdadero negocio es para los bancos y sus entidades gestoras. A la hora de la verdad el resultado es que la diferencia entre lo ahorrado y lo retirado, habitualmente es nuestra aportación mensual, porque los rendimientos en muchísimos casos son negativos, y no hemos sabido verlo para no utilizar este producto tan rentable para los bancos y tan ruinoso para los ahorradores.

Propuestas:

- 1.- Negociar una nueva legislación sustitutiva de la actual, que proteja verdaderamente los intereses de los ahorradores en activo para su jubilación, y modifique el rescate de estos sistemas de ahorro.
- 2.- Cambiar para las jubiladas y jubilados actuales el tratamiento fiscal de forma que se traten como ahorros que son y no como rendimientos del trabajo.
- 3.- En el supuesto de que no se apruebe, le solicitamos atentamente que nos explique los motivos por los cuales no se ha tenido en cuenta nuestra petición, mientras tenemos que ver otros productos como las SICAV que pagan solo el 2%.

Presidente NAGUSIAK  
D. Roberto Martínez Celorrio



---

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)


ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 14:10EAN, ETA IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,  
Juan Jose Txurruka Txurruka



markina-xemein  
udala

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,  
Iratxe Rementeria Otxandio



markina-xemein  
udala